

Asnabiren batzarra Aurizberrin

Martín SARAGÜETA GONZÁLEZ*

Urtero bezala, Nafarroako Liburuzainen Elkartearen topagune baten bila zebilen bere Iruñetik kanpoko batzarra burutzeko, norbaiti otu zitzaionean beharbada Pirinio aldean egitea ongi egonen litzatekeela. Zangozako batzarra iazkoan, aurtengoa Aurizberrin... bi segidan merindade berdinean. Berria mendialdekoek oso pozik jaso bagenu ere, espero genuen hegoaldeko kideak ez zitzaizkigula haserretuko...

Arerio naturala izaten ohi dugu eguraldia gure bailaretan, baina urriaren 24an, goizeko lainoen eta arratsaldeko xirimiri artean giro "epeltsu" eta atsegina izan genuen. Goizeko 10.30ean puntu-puntu hasi zen bisita Aurizberriko Herri Liburutegian, non ez baitzen gauza handirik azaltzeko: laurogeita hamar metro karratuko liburutegi txiki eta xumea baita, hori bai, egoitza kokorretan eta inguru paregabe batean kokatuta.

Segidan Batzordearen bilkura hasi zen –hogeita hiru liburuzain bertan zirela-, elkartearen gorabeherak eta gure munduaren inguruan diren pil-pilean dauden gaiak jorratzeko: datorren urteko batzorde aldaketa, zentsuraren inguruko berriak, TK aldizkariaren argitalpena, Liburutegi Nagusiaren izenaren aldeko proposamena...

111



* Aurizberriko Liburutegi Publikoa

12ak pasatxo eta gai guztiak garbituta, autoak hartu eta Orreagara abiatu ginen Kolegiata eta, batez ere, bertako liburutegia bisitatzeko asmotan. Orreagan, on Emilio kanonigo eta tokiko liburuzainarekin hasi zen bisitaldia. Altxor batzuk erakutsi eta historia ezagupen zabalak eskaini zizkigun bere azalpen interesgarrietan. Denbora eskaxa zela eta, eta beharbada bisitaldietarako ezarritako murrizketak zirela eta, ez genuen artxibategia eta kartografia gela ikusteko aukerarik izan. Tarterik gabe, Kolegiatako bisitaldiari ekin genion Assumpta gida xelebrearekin. Ibilbide azkarra izan bazen ere, primeran egon zen normalean publikoari erakusten ez diren tokiak ikusi ahal izan genituelako.

Bukatzeko, eta giro onean, Orreagan bertan "La Posada" izeneko jatetxean bazkaldu genuen. Halako tokiak sekulan ez du ikusi, eta zailki ikusiko, hainbertze liburuzain elkaturik!